

Bertsolaritza eskola ordutan: tantaz tanta ibaiak betez ..

Bertsozale Elkarteko irakaslea, klasea ematera etorri da bi astez behin, Mendialdeko 3 ikastetxeetara. 90 haur eta gaztek landu dute bertsolaritza aurten Urrian hasi eta Maiatzera bitartean.

Haur eta gazteek primeran pasa dute bertsoak egin eta entzunez, euskaraz jolastuz eta bide batez hainbat bertso emanaldi burutu dituzte.

GU ERE BERTSOLARI programa "bertsolaritzaren curriculum" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK**.

IKASTETXEAK

Kanpezu: Mendialdea IPI ikastetxea

Maeztu: Maeztu Herri eskola

Gu ere bertsotan



Eta eskolaz kanpo lehorterik ez...

MENDIALDEKO bertso-eskola

HELDUEN taldea

XVII. Mendea kultur elkartean

Asteazkeneo 20:00etan

KANPEZUKO bertso-eskola

GAZTEEN TALDEA

XVII. Mendea kultur elkartean

ostegunetan 17:00etan (hamabostero)

HAURREN TALDEA:

8-12 urteko haurrak

Kanpezuko Kultur Etxean

asteazkeneo, 18:30-19:30



Arabako Eskolarteko bertso txapelketa 2015

Maiatzaren 8an eman zitzaion hasiera Arabako Bertso-eskolartekoari eta bitarte honetan hiru kanporaketa burutu dira bi adin tartetan, 14tik beherakoak, eta 14 eta 18 urte bitartekoak; bi modalitateetan, bertso jarriak eta bat-batean. Topaketak Gasteizen, Zaldudon eta Aramaion burutu dira, orotara Gorbeialdeko, Gasteizko, Lautadako eta Mendialdeko haur eta gazteak aritu direlarik. Denera 60 bat haur eta gazte aritu dira aurtengo edizioan.

Finala Kanpezun, bertaratutako haur eta gaztetxoek, bertsozaleen, bertso-eskoletako lagunen eta etxekoek gozagarri. Bertso sortek ireki zuten kultur etxean hasi zen bertso festa. Kanpezuko bertso-eskolako txikiak izan ziren lehenak oholtzara igotzen, eta ederki piztu zuten giroa. Horien ondotik Aramaioko bertso-eskolakoek parodia ederra prestatu zuten.

Irribarrea ahoan oholtzaratu ziren Markel Yoller, Irati Ruiz de Pinedo, Peru Abarrategi, Unai Etxeausia, Peru Amorrortu eta Unai Argote. Irribarrez baina bertsoetan euren onena emateko prest. Zortziko nagusian zein txikian saio arinak eta umore ukitu ederrekin eskaini zizkiguten. 60 entzuleen aurrean, saio orekatua eta bizia osatu zuten ofizioki. Ondoren bakarkako txanda iritsi zen, puntuari erantzun eta hitzari bertso bat bota beharra. Entzulek gogoz txalotu zuten sei bertsolarien ahalegina eta ale ederrak entzuteko parada izan zuten bertaratutako guztiek.

Epaimahaiak, hala erabakita, Peru Abarrategik irabazi zuen finala. Hemendik aurrera, edizio batetik bestera, eskuz esku pasatuko den saria jaso zuen. Gasteizko Peru Amorrortuk bigarren postua lortu zuen. Biak izango dira Orion Ekainaren 27an izango den Euskal Herriko eskolarteko txapelketako finaleko Arabako ordezkariak, herrialdeko bertso-eskolako gazte eta haur guztiek egindako ahaleginaren erakusgarri bikainak.

Bat-bateko saioa amaituta, eguraldi ona lagun, kalejirari abiatu ziren haur, gazte eta gurasoak kalean barna. Al-boka, pandero eta puntuatu gabeko bertsoek hartu zuten kalea. Herriko plazan herri bazkari goxoa izan zuten eskerroneko sari. Bazkalostean bertso-showak eskaini zituzten Kanpezuko eta Aramaioko bertso-eskoletako gazteek. Egunari amaiera bikaina emateko, dantza plazan.



ABTX 2015 aurre-kanporaketak KANPEZUN

Arabako Bertsolari txapelketa 2014ko udazkenean hasi zen Kanpezun. Irailaren 27an hain zuzen ere. Aurre-kanporaketa bi jokatu ziren eta bertan 12 bertsolari Arabarrek hartu zuten parte. Kanpezuko kultur etxean izan zen eta bertan jende multzo polita batu zen bertsolarien ahaleginaz gozatu eta txalo jotzeko asmoz.



Tartetxo baten ostean Urtarrilaren 17an hasi zen txapelketa eta Mendialdeko bertso-eskolako zaleak hara eta hona ibili ginen bertso olatuaren atzetik. Finalera espedizioa ere antolatu zen eta presente egon zen bai animo pankartetan eta baita oholtza gainean entzun ziren bertsoetan ere. Hurrengoan gehiago eta hobeto!

Bertsoak mendi tartean

KANPEZU

- 2014/9/7 Bertso-poteoa Jaiak.
- 2014/9/27 Abtx2015. aurre-kanporaketa
- 2014/11/9 Bertsolariak San Martin azokan
- 2014/12/19 Bertxoko bira institututuan
- 2015/3/14 Bertso-korrika. "Bi bala"
- 2015/5/23 Arabako Eskolarteko finala



Gure eskualdeko txoko askotara heldu da bertsoa azken urte hauetan, era askotako publikoak dastatu ahal izan du leku ezberdinetan egin diren formatu ezberdinetako emanaldiak tarteko.

MAEZTU

- 2014/11/3 tailerra: Bertsolaritza, zer da hori?

URIZAHARRA

- 2014/11/8 Bertso-bazkaria

KORRES

- 2014/11/28 Bertso-afaria

URIBARRI HARANA

- 2014/12/23 Lautada- Mendialdea topaketa



Bertsolaritza eta bertsozaletasuna gure eskualdean leku propioa hartzen ari dira, jende askoren ahaleginari esker euskara esparruak berreskuratzen ari den bezala.



Etorkizunari itxaropentsu begiratzeko moduan gaude.

ESKERRIK ASKO

Hostoz hosto, Gereziz bete dugu egutegia: ZORIONAK!


Kurtsoa gogotsu hasi genuen Mendialdeko bertsozaleok. **Irailean** Arabako bertsolari txapelketako aurre-kanporaketak herrian izateak kurtsoaren haziak landatzeko beste ongarri eman zigun eta.

Urrian ikasturtea hasi eta **Azaroan** prest genuen azokarako bertso-dantza emanaldi-txoa. Eta nola ez antolatu bertso afari baba? Neguaren hotzari barruko berotasunaz aurre egin behar. Korreseko gazteluari eta arranoaren habiari goratzarre egin eta **Abenduan** geunden ohartzeko. Euskararen egunean bertso-pista jolasa herritik, kurtsoa amaitu aurretik institutuko gazte-entzat saio musikatu dibertigarri bat, lautadako bertso-eskolarekin topaketa eta urteari agur esateko, falta direnez gogoratzeko bertso sorta dotorea plazan.

Otsailean lurra astintzeari ekin behar, elur maluta artean, eta kostata baina **Martxoan** berriz loratzeko prest geunden: amodiozko bertsoen sari banaketa, bertso-eskolako haurren antzerkitxoa eta beste bi bala jaurtiki genituen, asteburu bakarrean.

Apirilean Lautada eta Mendialdeko bertso-eskolen konexioak hobetu genituen, erleak gereziondoan bezala, ezta egiteko prest, eta **Maiatzean** eskolarteko finala ekarri genuen mendialdera, ikastolako jaiarekin bat eginez, guztion ahozapien gozagarri...

Gauzak horrela, **Ekainerako** gereziz beteta zegoen gure zuhaitza, ondo zaindu eta mimatu dugunaren seinale!



AZAROAREN 28an OSTIRALA
21:00etan KORREseko ELKARTEAN



BERTSO AFARIA

kanpezun abenduak 3
EUSKARA PLAZARA

EUSKARAK 365 EGUN

18:30etatik aurrera
umeentzako bertso pista jokoak
txokolatada
dantza plaza
bertsoak
kantu poteo
merendola
Usarrin

Mendialdeko bertso-eskola
(Maeztu eta Kanpezu)
Kanpezuko kultur etxea
01110 KANPEZU

Arabako Bertsozale Elkarte
Benito Perez Galdos, z/g- Amaia Zentroa
945 010505/ araba@bertsozale.com

www.bertsozale.eus/araba

www.bertsozale.eus



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.alava.net

